

Jainkosen amalurra Pastoralaren estrenau eben Bilbon Dimako Ugarana Herri Eskolako ikasleak

Zefe Ziarrustaren gidoiagaz eta Ibon Izak sortutako bertsoakaz sortutako Pastoralaren estrenau eben Bilboko Bizkaia Aretoan Dimako 6. mailako ikasleak martiaren 19an. Ia ikasturte biko lana erakutsi eben publikoaren aurrean: eszenografia, jantzak, musika... Proiektua Loraldia Eskolatik sortu zan eta hango koordinatzaile baten laguntzea izan dabe sortze prozesuan. **12. orrialdea**



Sailkapenean hirugarren postuan dago Gernika-Arratiko errugbi taldea

10. orrialdea

Euskaltegiak bultzatzeko ekimena abiatu dau AEK-k

2022ko Korrika martiaren 31tik apirilaren 10era izango da.

Korrika atzeratzeak zorpetu egin dauala eta *Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!* izeneko dinamikea ipini dau martxan AEK-k. Martiaren 28an, egin izan balitz Korrika amaituko zan egunean, 80 leku baino gehiagotan, lekukoa kalera atera eta ekitaldiak antolatu ziran. Arratian, Kubulu Euskaltegi aurrean, bailarako herri askotatik etorritako jentea batu zan, AEK-ri babesa emoteko. AEK-k gutun bat heldu arazoko deute Euskal Herriko administrazio nagusiei datozen urteetan euskalduntze mobimentuak zelango baldintzak izan behar dituan jasota eta mota guztietako eragileakazko lan-ildo amankomun bat landuten hasi da, aurrerapausu gehiago emoteko. **5. orrialdea**



Ubideren iragana herrikoen genealogiaren bidez



Aditu Arkeologia Zerbitzuak enpresako arkeologoak Ubideko aita-amamaren bat daukien ubideztarri azterketa genealogikoa egingo deutsee. Aditu Arkeologia Ubiden sortu zan 2009an. Bertako Fran Valle de Tarazaga arkeologoaren arabera, proiektu honen helburuetako bat Ubideren jatorria azterteko litzateke. Hamahiru lagunek eskatu dabe azterketa genealogikoa. **8. eta 9. orrialdeak**

ARRATIA

Eukaliptoaren inguruko alkarrizketa irekia Igorreko Kultur Etxean

Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak antolatuta apirilaren 8an, Arturo Elosegi EHUKo katedratikoa, Jon Hidalgo Lurgai Fundazioko, Txomin Diaz mendi ingeniaria eta Patxi Olabarieta Arratiako mendi jaubea Kultur Etxean izango dira eukaliptoaren eraginaren gaineko solasaldian. **7. orrialdea**

BEDIA

Gastua kontrolatuko aurrekontuak onartu ditu Bediak

Martiaren 23an onartu ziran 2021eko aurrekontuak Bedian, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoak. Guztira, 1.245.981 euro kudeatuko ditu Udalak, igazko aurrekontuetan baino 240.000 euro inguru gutxiago. **7. orrialdea**

ARANTZAZU

Lan-esplotazioa eta persona trafikoa leporatuta hiru lagun atxilotuta

Martiaren 23an, Ertzaintzak hiru lagun atxilotu ebazan Arantzazun lan-esplotaziorako persona trafikoa leporatuta. Ertzaintzaren arabera, sareak Nikaraguan bi-lutzen ebazan andrak, honako bi-jaea gestionau eta 10.000 euro inguruko zorra ipinten eutsen, eurak bilatutako etxeko zerbitzuko lanen bitartez pagau behar ebena. Zemendian hasi eban ikerketa Ertzaintzako Pertsonen aurkako Delituen Atal Nagusiak.

EH Bilduk eta EAJ-PNVk, delitu honek suposatzen dauan giza eskubideen urraketen kontra agertu dira. **7. orrialdea**

EKIN
30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

GARENA
Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant
garena.restaurant

ZEURE BERBEA

Martiaren bueltan

Martiaren 8a Andren Nazinoarteko Eguna dala eta, hilean zehar hainbat ekimen burutu dira; Euskal Herri mailan, Arratian eta Artean be bai. Alkarretaratze jentetsua euki genduan plazan. Bertan, manifestutik aparte Kafrangak Arteako Andra Taldea aurkeztu geuntsan herriari. Barriro be, iraina ikur bihurtu dogu. Kafrangak gara, eta zer?

Hilean zehar beste ekintza batzuk be eroan doguz aurrera: Wikimakumeok-en berbaldia eta tailer praktikoa alde batetik, eta personen trafikoaren inguruko zineforuma, bestetik. Udalarari proposamen zerrenda luzea heldu arazo deusagu, andra artistak gure plazak bete dagiezan. Hori be, "Ez da kasualitatea".

Arratiako mobimentu feministaren sareak indarrak batu eta ahaldundu egiten gaitu, herri bakotxaren txikitasuna bailarako harrotasun bihurtuterraino. Herri herriko dinamiketarik harago ikuspegiak, lan ildoak eta kartelak alkarregaz homiduten doguz. Mazala, Noka, Orratzak, Andraizea, eta Zaplast, eta hortik librean (baina antolatuta) zagozien norbanako burrukalariak, mila esker bidelagun izatearren. Hau ez da despedidea, eta badakizue!

Bideoren baten ikusi doguzan

estampak kezkatu gaitu, *we can do it* edo antzeko ikur feministak bereganatzeko asmoa dagoala daukagu eretxia. Eta ez, feminismoa ez dago salgai. Agur jaunak, jaunak agur, agur t'ardi. Batzuek bazterretatik erdigunera salto egiteko, beste batzuk erdigunetik bazterretara joan behar. Konbite serioa kamararen aurrean erdi-erdian agertuten zaien gizon zuriai, poderearen hegemonia gura dozueno, zoazie baztertera eta itxi pasetan.

Instituzinoak ondoan behar doguz, herri mobimentutik marketan diran erritmo eta erronkai aurre egiten lagunduteko; inondik inora be ez gu ordezkateko, ezta etekin politikorik aterateko be. Badago zer birpentsau. Martiaren 8tik eta zemendiaren 25etik harago, badago bestelako planik? Geroa morea da ala oraina irauli gura dogu? Zein da aurrekontuetan bideratzen dan partidea? Andra taldeetatik sortutako mozinoak zergaitik emendakinez josi? Zein erraztasun emoten dira ekimenak burututeko?

Hi haz hi kafrangea! Harro izan be. Pentsetan doguna esan, idatzi, oihukatu eta aldarrikatuten segiduko dogu. Haginak zorrotz batzuetan, irribarrez bestetan.

Martian hauxe, apriletik aurrera gehiago!

KAFRANGAK ARTEAKO ANDRA TALDEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Galapada/Galapan



Arineketan egindako saioari, hau da, arineketaldiari galapada esaten jako (galapadéa edo galafadéa, ahoskatuta). Batuan, lasterketa da. Adibidez: "Galapadea bota arren, autobusa galdu dogu!". Berba hau gero eta gitxiago entzuten da gure artean, eta gauza bera gertatuten jako hurrengo honeri: galapan. Izen honeri jagokon adberbioa, hau da, oinez baino bizkorrago edo arinago ibiltetari galapan deritxo (gálpán edo gálafan, ahoskatuta). Batuan, korrika edo lasterka nagusitu dira, baina Bizkaiko beste leku batzuetakoak dira honakoak: arin-arinka, karran, arapaladan...

ERETXIA

Gazteon kriminalizazioa

Jakina da pandemia egoerak zapalkuntza moduak areagotu eta zakartu egin dituala. Honen adibide argiak dira euren erasotzaileak isolatuta egon diran andrak, lan-egoera prekarioak okertu jakiezan personak, zaintza lanetan diharduen andra errazializaduak, pobrezia egoera gordinagoan aurkitu diran familiak edota zaugarritasun egoera baten bizirautetik pobrezian biziterra igaro diranak be. Konfinamentua biziteko modua bera be, honen adierazgarri bat izan da. Bada bere bigarren etxebizitzara joan ahal izan dana, edota kalefazioa bizitu ezin izan dauana be.

Baina azken aldian, horren agerian ez dagoan –edo behintzat, horrenbeste hitz egiten ez dan– beste podere harreman baten inguruan nabil bueltaka: helduen poderearen inguruan. Izan be, helduen poderea edade guztietan emoten da, esperientziaren balioa dala medio, hau daukiene eta ez daukiene arteko desbardintasunak markauz. Baina jakina, gazteon gainean modu berezian emoten da.

Esperientzia falta honeri leporatzen jakoz gazteok sufriduten doguzan egoera injustuak edo zapalkuntza moduak: lan arloan daukagun ezegonkortasunak eta alkilerren prezio altuak dakarren emanzipazio berantiarra, lan baten "pasau beharra dagoan" fase legez saltzean jakun gazteon lanaren prekarizazioa, konsumismora lotutako aisialdia...

Ez da kasualitatea jendartearen sektore honengan emoten dan infantilizazioa, eta honek gazteok gazte moduan egiten dogun ekarpenaren gitxipena dakar.

Guztiok ikusi dogu komunikabideak gazteai erreferentzia egiteko erabilten daben mespretxua edota paternalismoa. Titularren protagonista izan gara 2020ko martitik gure "ardurabakotasunari" edota "konzienzia" zein "es-



LORE AZPIRI ARANBARRI

Gizarte langilea

kuzabaltasun falteari" apelauz: boteloioak, festa klandestinoak, eta abar, egunetik egunera ikusi ahal izan doguz komunikabideetan. Aldiz, ezer gitxi aitatu da pandemiaren kontestuan batez be gazteon inizatibaz sortuak izan diran zaintza sareez, edota harremantzeko moduak aldatu diran neurrian, honek ahalbidetzeko moldaketen inguruan.

Modu sistematikoan, epaiketa bat emoten da gazteon jardutean. Guztiok, norbanako moduan gure arnaguneak bilatzen doguz pandemia honen baitan: astegoiene pasa bere probintzian furgoneteagaz urtetan danak, eroateko kafea hartu eta auzoko bankoan kafea edaten dauanak, herri konfinamentua saltau eta beste herri batera familia bisitetan doanak, edo 15 urte gaz gaueko 10ak arte boteloioa egiten dabenak hori daukie amankomunean. Aisialdiak daukan garrantziari ez jako baliorik emoten –oinldino gitxiago gazteon inguruan bagabiz berbetan–, eta gazteon kriminalizazioak eta helduen poderearen paternalismoak ez deusku lekurik itxi gura gazteon aisialdiaren gaia mahai gainean jarri eta seriotasunez alternatibak planteetako.

Gaztaroaren ezaugarri bat da harremantzeko beharra eta familiaratik harago doazen loturak lantzearena. Beharrezkoa jaku jente barria ezetutea, eztabaidatzea, saretzea, antolatzea, arnasa hartzea, barre egitea, jolas-tea... HAZTEA. Argi dago egoera barriak erronka pila bat zabaldu dituala hau guztiau aurrera eroateko moduai jagokonean, baina modu barriak ikasteko prest gagozala erakutsi dogu. Eta epaitzen gaituen horreek alternatibai horrenbesteko bildurrik izango ez baleutsee, hau ikusteko gai izango litzatekez.

2020ko errenta aitortpena egitea
Aholkularitza
Lekua: BBVA Areatza
Aurretiko hitzordua
699 120 827

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsinoak
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Salino Arana 3, 48140 ICORPE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Kili-Kili
Amopu eta Panadurak
Lehendakari Agirre 10 - ICORPE (Bizkaia)
Tel.: 94 679 43 81

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Galdar 666 58 20 06
Pazuzta polygonoa, 10 LEMOA • beeredotaki@gmail.com

LUMATUTEN

IXONE AROMA
BARRENA

Maite ditut maite

Bajoaku martia apurka-apurka. Urten dogu urten badogu eta bete doguz plazak beste urte batez "Dena aldatu, sistema arrakalatu" oihukatuz. Heteropatriarkadua, maitasun erromantikoa, kapitalismoa... dana! Beto zaintzaren etika eta gorputzaren politika. Feminismoaren ohiko aldarrikapenetatik harago joata burua eta dana hartu guran, hazten eta zabaltzen doa espirala.

Bajoaku martia eta beharra galdu ez dogunok, edota bestelako pribilegioak doguzanok laster izango doguz (santu edo dana dalako) opor egun batzuk. Alemanak Baleareetara bai, baina enparauok nekez mobidu ahal izango dogu geure mugetatik harago. Parkatu, EAEko mugetatik harago. Ez Nafarroara, ez Lapurdira, Ez Zuberoara. Amaitu jakuz hegazkina hartu eta neguan eguzkia hartzean joateak, udan hilabeteko oporrak Hegoameriketara motxila aldean

ibilteak. Agur *souvenir* exotikoai eta urteroko "konkistai".

Pandemia honek zeozer ona ekarri badeusku, gure inguruko mendi, eta bazterrak ezetuteko aukerea izan da (lehen be ez dogu eukin galarazota gero!). Herriko mugak non hasi eta amaituten diran badakigu oin, inoz igon bako tontorrek zapaldu doguz eta gai gara, Miren Amurizak behinola proposau euskun moduan, minutu baten Arabako 10 herriren izenak esateko... ala ez?

Ez dakit ba. Gure irakasle batek esaten eban moduan, edertotxu dakigu Benidorm non dagoan, baina ez gara gai Barkoxe mapan kokatuteko. Eta esango neuke, aukerea emoten deuskuenean, barriro be martxan ipini gurako dogula atoa eta goizetik gauera ahaztuko doguzala zazpigarren alaba eta hatxosteko parajeak.

Kanpora urtetea sana eta beharrezkoa da, baina beharizan larregizko hori sortua da eta zelofanean bilduta erosteko gogoz jarraituten dogu oindino, sistema elikatuz. Arakatu daigun geurea. Zaindu daigun ingurukoa. Maitatu daigun beste modu batez. Holan be arrakalduko dogu sistema eta.

ZERTZEAN



IRANTZU LEKUE



ago

BEGI TXINDORRA

Kultura desbardineta hizkuntzak, geografia, musikea, jantzak... hurreratu deutsez Gurutze Gorrikoak 6 eta 12 urte bitarteko umeai, Munduari Jira Bira! izeneko programearen bitartez. Martiaren 29tik 31ra izan dira jarduerak. Alkar ezetuteko jolasak, jatorri desbardineta jantzak ezetu eta taldetan mundu zabaleko jantzak prestatzen ditue programa honegaz. Euskal Autonomia Erkidegotik urten ezin garan honetan, ondo dago umeak jakitea harago be mundu oso bat zabaltzen dala.

Munduari Jira Bira! programea 2015ean abiatu eban Arratian Gurutze Gorriak. Igaz bertan behera geratu zan itxialdiagaitik baina aurten ekin deusie barriro. Programa honen helburuetako bat, edozelango bazterkeriari eta errazakeriari aurre egitea da, estereotipoak eta aurrerexia gaintzeko. Eta, umeen artean beste errealidade kulturalak ezetuten emoten lagundu gura dau programa honek, barden arteko hartu-emonak bultzatuz.

Izan be, bidaiatzea, munduari jira eta bira egitea eta beste errealidadeak ikustea langorik ez dago errazismoaren kontra.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Osasunagintza
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zurbela 101
R.P.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERERA
Elizavola, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 62 - 608 664 018

T ERROITZ OKA
Lagunak
giovik
osatu!
Lanbideari Agereko
Igome

AEK-k ekitaldia egin eban Korrika amaitu behar izan zan egunean

COVID-19aren pandemia eta haren kontrako neurriak dirala eta, aurten ez da egin 22. Korrika. Egin izan balitz, martiaren 28an amaituko zan AEK-rentzat diru iturri garrantzitsua dan euskerearen aldeko lasterketa.

Erredakzioa

Horren orde, *Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!* izeneko dinamikea antolatu eban AEK-k eta 80 ekitaldi baino gehiago egin ziran, euskerearen lekukoa, aurten be klean egon daiten. Arratiak be hartu eban parte dinamikean, Igorren egindako ekitaldiagaz eta herrietatik korrika eginda. 22. Korrika, 2022ko martiaren 31tik, apirilaren 10era izango da.

Korrika txiki batek, furgoneta, pankarta eta lekuko eta guzti, emon eutsan hasikerea, Igorreko Kubulu euskaltegiaren aurrean egindako ekitaldiari. Arkaitz Estiballesek "Euskal Herriko herriarren %55 erdalduna da. Euskaltegi indartsuak behar doguz euskerearen biziberritze osoa lortzeako" gaia hartuta bertsoak



bota ebazan. AEK-ren mezua irakurri zan gero, barriro be Estiballesek bertsoak bota ebazan eta Arratiako herrietatik etorri eta



bertan bildutakoak *Euskal Herrian euskaraz* kantua kantau eban. Birtartean, panela margotu eta amaituteko talde argazkia atera eban.

Bultza euskaltegiak dinamikea

AEK-k gutun bat heldu arazoko deutse Euskal Herriko administrazio nagusiai datozen urteetan euskalduntze mobimentuak zelango baldintzak izan behar dituan jasota. Mota guztietako eragileakazko lan-ildo amankomun bat be landuten hasi da AEK, eragileak aurrerapausu gehiago emoteko. *Bultza euskara, egizu zure ekarpena* kanpaina be abiatu dabe. Ekarpentok, AEK-

ren webgunean egin daitezke. "Korrika atzeratzeak zuloa eragin deusku eta herriarren bultzada ekonomikoa behar dogu" azaldu eban ekitaldian.

Ubiden

Ubideko herrian be zeozer egin gura eban euren alkartasuna adiarazoteko eta, pankartea danon artean egin eta lekukoa umeak hartuta, heritik zehar Korrika egin eban petoa aldean daukiela. Herriarrak egindako ekarpenakaz osotutako otzara bat zozketatu zan eta saldutako boletoakaz jasotako dirua, ia 500 euro, izan da AEKri egindako ekarpena, euskerea eta euskaltegiak bultzatzeko.

Igorreko plantan urtean 1.300 tona konpost inguru ekoiztea aurreikusten dau Garbiker enpresek

Garbikerren arabera, Igorreko konpostaje plantak urtean 3.000 tona hondakin tratetako kapazitatea dauka, Arratia, Durangalde eta Durangoko eukiontzi marroietan eta inausketa hondakinetan gaika bildutakoak eta, aurreikuspenen arabera, 1.300 tona konpost ekoiztiko dira bertan.

Erredakzioa

Ostean, planteak erabilten daben herri, enpresa eta partikularren esku egongo da konpostaje Garbikerrek ezarritako tarifen arabera.

Igorreko konpostaje planteak, 2014tik martxan dagoan Igorreko Hondakin Transferentziarako Plantaren espazioan kokatuko da, baina ez dau ondoko parzelan dagoan eta guztiz zarratuta dagoan zaborteziaren eremurik hartuko. Garbiker da transferentzia plantaren titularrak eta berak finantziatuko dau konpostaje planteak funtzionamentuan ipinteko egin behar diran lanak. Planta horren funtzionamenturako, lehendik dagozan



instalazioak aprobetxauko dira; baskulea, aldagelak, ur hornidura eta saneamentu instalazioak, hornidura elektrikorako transfor-

mazio zentroa eta urbanizautak dagozan eremuak, barbarako.

Konpostaje prozesu mekanizatua

Garbikerrek BEGITU jakin arazotakoaren arabera, prozesu honek ez dau usain txarrik sortzean eta etxeetan egin daiteken konpostaje prozesua baino mekanizatuago da, "inausketa hondakinak birrintzen dira, makina espezifikok erabiliz bio-hondakinak nahasten dira, errektore bertikal baten prozesatzen da eta, azkenik, sortutako konpostak bahetzen da, behin nahasteak onte maila optimoa lortu dauanean".

Euren esanetan, eskualdeetan konpostaje plantak ipinteko dakarren abantailarik handiena, hondakinak sortzean diran eremuetatik konpostaje plantara eroateko bidaia murriztea da.

Eukiontzi marroiko hondakinak

Igorreko konpostaje plantan, bio-hondakinak tratetako Bizkaiko gainerako instalazioetan legez, eukiontzi marroien itxitako hondakinak tratauko dira. Hau da:

- Okela, arrain, itsaski, hestebete, arrautza eta horreen azal, hazur eta gatzaiaren hondar gor-

dinak eta kozinaduak.

- Landare jatorriko hondar kozinaduak edo gordinak.

- Lore eta landareen hondarrak, baratze hondarrak, bedarra eta inausketaren hondarrak.

- Kafe hondarrak eta iragazkiak, infusino boltsatxoak, ogi, gailera eta opilen hondarrak, frutu lehorrak eta horreen oskolak, fruta-hezurak eta kortxo naturaleko tapiak.

- Sueteko papera, paperezko ezpainzapiak eta mahai-zapiak, kartoizko arrautza ontziak eta uhin kartoi zikina, materia organikoz zikinduta dagozanak.

- Brotxeta eta beste elikagai batzuetarako zotzak, izozki makilak eta antzekoak.

- Txikoria, algak, alpestea, karameluak, gozokiak eta zerealak, uruna, mermelada.

- Konpostagarriak diran boltsak, ontziak eta tresnak.



AREATZA

Hamabost urteko ibilbidea egin dau Areatzak bardintasun politiketan

Bardintasun Plan barria egiteko, oin arteko ibilbidearen diagnostikoa egin dau Udalak eta beratu gauzatu dauan Errotik Kooperatiba Feministek aurkeztu ebazan diagnostikoaren emaitzak.

Erredakzioa

I. Bardintasun Plana 2005ean egin eban Areatzak; 2010ean, bigarrena, eta 2014tik 2021era Bigarren Planaren luzapena egon da indarrean. Areatza, Bardintasun politikak martxan ipinten 2003an hasi zan; urte horretan izan eban lehenengoz Bardintasun zinegotzia eta. Beste mugari bat Emakumeen Foroa izan zan, 2007tik 2017ra egon zana beharrean. Arratiako Udalen Mankomunitateagaz alkarlana, 2012an hasi zan, urte haretan AUMk Bardintasun Zerbitzua ipini ebalako martxan, Bardintasun teknikaria kontratauz eta indarkeria protokoloa ezariz. 2014an, Emakumeen gela, herriko andrentzako espazio propioa eskuratu zan. Beste mugari bat, 2016an sortutako Arriako Jabekuntza Eskolea da. Bertan hartzean dau parte Areatzak, ikastaro, tailer eta beste ekintzakaz.

Diagnostikoa egiteko prozesua 2020ko urri lehenengoan hasi zan eta 2021eko martian amaitu. Udal gobernu eta langileak, talde eragi-

leak eta talde orokorrak hartu dabe parte diagnostikoan.

Ebaluazioa

Bigarren Planaren ekintzen betetze maila nahiko altua izan zan bere iraunaldian (2010-2013) baina gero ekintza batzuek ez dabe jarraipenik euki Errotik-eko teknikariaren arabera. Ha-ta guzti be, batez be jabekuntza ildoan lan egin dauan Emakumeen Foroaren indarra handia zan eta "kalidadezko ekintzak, ondo bideratuak eta eragile erreferenteakaz" egin ziran. Foroak be bultzatu eban AUMko Bardintasun Zerbitzuaren sorrera eta Arratiako Jabekuntza Eskolea.

Ondoren, 2017an Foroa desagertzean eta AUMen egondako teknikari aldaketak (hiru teknikari ordutik oin arte) eraginda, bardintasun politikak indartzeko premia ikusten da.

Beharrak eta aukerak

Udalari jagokonean, Errotik-ekoak ikusten dabezan preminak dira, batez be, formakuntza egokitua emon

behar dala eta beste erakundeakaz, AUMgaz batez be, koordinazioa indartzea. Bardintasuna lehenetsuna izateko, baliabideak behar dirala eta langileen egonkortasun faltea eta AUMen azpikontratak oztopotzat ditue horretarako.

Hezkuntza, Gazteria eta Osasun arloakaz egiten dan lana aztertuta, "Areatzako eskolan egiten dan hezkidetzeta lana, nahiko indartsua" dala ondorioztatu dabe, sistematizazio faltea egon arren. Gazteriarri zuzendutako prebentzio arloan, Ludotekan eta Gaztelekuan, generoan eta indarkeria matxistearen prebentzioan formakuntza behar da eta AUMko Bardintasun Teknikariagaz lankidetzeta indartzea proposatzen dabe. Osasun arloan be koordinazio faltea eta desbardintasun nabarmenak ikusten dabez konsultan, andren eta gizonen osasun arazoak diagnostikatzerakoan.

Herriarri jagokonean, andren espazio propioak sustatzea ezinbestekotzat jotzen ditue Errotik kooperatibakoak, "Foroa desagertu zanetik, Emakumeen gela hutsik dago". Eta parte-hartzea sustatzeko organo bat sortzeako lehenengo pausuak emoten animau ebezan hurreratutakoak, Areatzako alkarteak eta mobimentuak eta Udalak, Bardintasunerako egiturak ipinteko aukerea dagoalakoan.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Landa Garapenerako Gorbeialde alkarteak eta Gorbeialdeko Koadrilak turismoan alkarlanerako hitzarmena berretsi dabe

Erredakzioa

Gorbeialdeko Koadrilak eta Landa Garapenerako Gorbeialde alkarteak lankidetzarako hitzarmen bat sinatu eban 2010ean, turismoaren arloan aurreikusitako ekintzak koordinetako. Martiaren 18an, hitzarmena berretsi eta Gorbeialdeko 2021eko Ekintza Planari oneretxia emon eutsien. Hori dala-eta, ekintza ugari egingo ditue batera, aurtun be.

Eider Ajuriagerra Arana Landa Garapenerako Gorbeialde Elkarreko presidentek eta Agustin Otsoa Eribeko Landa, Gorbeialdeko Koadrilako presidentek, Zeaurin sinatu eban hitzarmena martiaren 18an, eta horren bi-



Eider Ajuriagerra eta Agustin Otsoa Eribeko.

dez, Gorbeia Jomuga Turistikoak, 2021eko Euskadiko bihotz berderako Ekintza Planari oneretxia emon deutso. Lankidetzearen

turismo estrategia partekatua eta gardena dala esan eban alkarte bietako presidentek. Urtero berresten da hitzarmen hau.

ARRATIA

Zaintza, konfiantza eta kohesinoa landuteko tailerra



erreferentzia. "Historian zehar eta patriarkaduren ondorioz, andren arteko lehia eta ikusiezina izan da genero femeninoa eregiteko ardatz eta oinarrietako bat". Ikastaro honetan zaintza, konfiantza eta kohesinoa landuko dabe, alkatasuna ondo biziteko beharrezkoa dalakoan.

Edurne Epelde Pagola zarauzterra Bilgune Feministako kidea da eta *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat* liburuaren egileetako bat.

Hasitako beste ikastaroak

Ilgoran Jabekuntza Eskolako beste ikastaroa batzuk be martxan dagoz. Martiaren 23an hasitako *Gure burua ezagutzea eta ahalduz argazkilaritzaren bidez* Adirane Azkuenagaren ikastaroak, apirilaren 6an, 12an eta 20an izango ditu saioak Igorreko Kultur Etxean 18:00etatik 20:00etara.

Sukaldaritza begetarianoko ikastaroa be aurrera doa. Marta Miramon sukaldariak emoten dauz eskolak, astelehenetan, hamabostean behin Arantzazun.

Erredakzioa

Apirilaren 16 eta 17an, norberaren burua eta taldea jagoteko *Ahizpatasuna gure gorputzean* izeneko tailerra emongo dau Edurne Epeldek Dimako eskolan. Barikuko saioa 18:30etik 20:30era izango da eta zapatukoa 10:30etik 14:30era.

Ahizpatasuna terminoak andren arteko alkatasuna eta solidaridadeari egiten deutso

LEMOA

Lau proposamen aztertu ditue etorkizuneko Lemoarako

Erredakzioa

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren (HAPO) lanketan aurrera jarraituz, arlo teknikitik agertzen diran lau Lemoa posibleak aztertu ebezan herritarrak tailer bitan. HAPO barriak, Lemoaren datozen hamarkadetako antolamentua finkatuko dau. Tailerrotan 30 herritar inguruk hartu eban parte.

Tailer honeetan "lau aukera aurkeztu dira, jentek ekarpenak egin ditu, eta parte hartzaileak proiektuari buruz euren eretxia idazteko aukerea izan dabe. Horrek ez dau esan gura bere horretan onartuko danik A, B, C edo D proposamena, azken finean, behin behineko onarpena egiten danean lau proposamenen arteko batuketara izan daiteke" azaldu deutso BEGITURI udal arkitektoak.

Maiatzera arte, alegazioak egiteko epea dago zabalik.

Etorkizuneko Lemoa

Partaideak ekarpenak egiterakoan erakutsi daben "herri ikuskera eta etorkizunerako kezka" azpimarratu dabe udaletik. Izan be, garrantzia



handiko tresna da HAPOa "honen bitartez etorkizuneko Lemoa marraztu, pentsatu eta garatuko dogu" Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatearen esanetan. Jon Ander Perez Hirigintzako zinegotziaren arabera, "datozen urteetan aldaketa handiak biziko doguz mundu mailan eta pandemiak aldaketa horreen beharra azkartu besterik ez dau egingo. Planeta jasangarriago bat eregitea aukerea baino, beharriazana da, eta prozesu hori txikitik handira egin beharko da askotan. Gure kasuan, Lemoa jasangarri, garbi eta orekatuago bat eregiteko helburua lortzeako tresna garrantzitsua da HAPOa".

ARRATIA

Eukaliptoaren eraginaren inguruko mintegia antolatu dau Makatzak ekologista taldeak

Erredakzioa

Atzen urteotan Arratian eta Euskadi osoan eukalipto landaketeen ugaltzeagaz kezkatuta, horren gainean hausnartzeko eta baso kudeaketa iraunkorragoa bultzatu guran, Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak apirilaren 8an, 19:00etan, eukaliptoaren eraginaren gaineko mintegia antolatu dau Igorreko Kultur Etxean eta arratiarrak konbidatu ditu parte hartzera. Bertan, Euskal Herriko Unibertsitateko Arturo Elosegik katedratikoa, Lurguia Fundazioko Jon Hidalgo, Txomin Diaz mendi ingeniaria eta Patxi Olabarrieta Arratiako lur jaubea izango dira.

"Pinu sailetan banda marroia agertu izanak, monolaborantzan oinarritutako baso kudeaketen eragin negatiboa begi bistan itxi badau be, jaube askok eukaliptoaren monolaborantzan oinarritutako baso azalera handitzea



ebatzi dabe eta ebatzi horren errazoi eta ondorioen gaineko hausnarketea bultzatu gura dabe" dinoe.

Beste gauza batzuen artean, mintegian landuko da "eukaliptozazinoak" zelan eragingo deusn gure baliabide naturalen kalidadeari eta bizikidetzari sozialari, eta horrerri aurre egiteko ze beste aukera jasangarri eta barritzaile dagozan eta ze politika publiko behar diran horreek martxan ipinteko.

BEDIA

Gastuaren kontrolean oinarritutako aurrekontuak

Erredakzioa

Martiaren 23an onartu ziran 2021eko aurrekontuak Bedian, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz. Guztira, 1.245.981 euro kudeatuko ditu Udalak, igazko aurrekontua baino 240.000 euro inguru gitiago.

Igazko aurrekontuetan agertzen ziran diru sarrera batzuk aurten ez ditue izango; kapital transferentziak eta finantza-aktiboak, hain zuzen be, eta honeek ia 350.000 euro dira. Eta diru-sarrera guztiak txikiagoak izatea espero da. Holan, aurrekontu oreka lortzarren, gastuaren kontrolean oinarritu dira jeltzaleak aurrekontu honeek aurkezteko.

Inbersinoak eta proiektuak

Urigintzako inbersinoai jagokienean, diru partidari handiena hilerria barrizatzeke lehenengo faserako izango da (95.000 euro). Asteitzako urbanizazio errematerako eta Garabiko bidearen konpokatetarako be diru partidak dagoz.

Kultura ekintzetatarako 63.300 euro dagoz eta Gazteriarentzako beste 42.000euro. Euskereak (29.500), bardintasunak (14.000) eta edadekoak be (10.700) diru partidea daukie.

EH Bilduk kontrako botoa

"Faltan bota dogu Errota erakundeari ordaindu beharreko kuota eta aurreko urteetako ordaindu barik egoala jakin dogu. Udal gobernua ordainketak egin barri dagozala, eta aurrekontuetan egon ez arren, partida bat gehitzeko arazorik ez dagoala esan eban. Erantzuna ez jaku egokia irudituko Udalak emondako informazioan ez dalako holan agertzen" dinoe EH Bildutik.

ARANTZAZU

Lan-esplotaziorako persona trafikoa leporatuta hiru persona atxilotu ditue

Martiaren 23an, Ikerketa Kriminalerako eta Polizia Judizialerako Atal Nagusiak hiru persona atxilotu ebazan Arantzazun Nikaraguaratik etorritako personak trafiketan eban talde baten kontrako "Buelbaka" izeneko operatiboaren esparruan.

Erredakzioa

Ertzaintzaren arabera, taldea Arratian eta Nikaraguako Somoto urian errotuta egoan, eta etorkizun hobearen bila ebilzan andrak erakarten ebazan. Andrai bidaia kudeatzen eutsen eta 10.000 euro inguruko zorra ipini. Atxilotutakoak andra bi eta gizon bat izan ziran. Talde kriminal baten barruan personak legez kontrako trafikoa, legez kontrako immigrazioan lagundutea eta lan-esplotazioa helburu daukan giza salerosketea leporatu deutseez. Zemendian hasi zan ikerketea eta Ertzaintzako Pertsonen aurkako Delituen Atal Nagusiko agente adituak egin dabe, Durangoko hirugarren Instrukzio Epaitegiak zuzenduta.

Biktimak 20 urtetik 40 urtera bitartekoak dira. Kontratu bat sinatuzera behartzen ebezan, eta abal moduan jatorriko herrialdeko familiaren jaubetzak ipinten ebezan. 10.000 euro inguruko zorraren barri Bizkaira heldutakoan jakinarazoten eutsen. Zor hori, taldeak berak lortutako etxe-zerbitzuko lanetan kobrutako diruagaz ordaindu behar eban. Kasurik gehienetan barriro neskame moduan lan egin

behar izaten eban. Holan, biktimak isolatu eta gizarte-harremanak saihestea lortzen eban, eta, aldi berean, biktimen zaurgarritasun egoerea handitzea.

Ikerketan zehar jakin da hamar bat migratzaile irregular sartu dituala Espainian talde honek, eta lan-esplotazioa helburu daukan giza salerosketaren kasu bat be badagoala tartean. Horrez gainera, miatutako etxebizitzan aurkitu daukan dokumentazioari esker, Ertzaintzak espero dau egiaztatu ahal izatea 2017tik martxan egoan talde honek hogeitatu bat andra sartu dituala Estatuan.

"Martiaren 23an, martitzenean, goizetik herria ertzainez bete jakun eta etxe horretan bizi ziran bizilagunak atxilotu zituen. Operazioa polizial honen nondik norakoak domekan komunikabideak informau ebanean jakin genduzan. Arantzazuko Udaltetik, andra honek sufriduten daben lan esplotazioa, giza salerosketea eta oinarritzko eskubideen giza urraketa guztiak gaitzesten doguz" azaldu deutso BEGITUri Asier Aburto Arantzazuko alkateak.

Erreakzioak

Alderdi politikoak persona trafikoa

suposatzen dauan giza eskubideen urraketearen aurrean, gaitzespena adierazo dabe. EH Bilduk, atzerriarttasun legeak holakoak ahalbidetzen dituala salatu dau. "Atzerriarttasun legeak ezartzen dituan mugak eta eskubideen urratzeak, egoera bortitzenetarako inpunidade espazioak zabaltzen ditu, eta bestetik ipar-hego globalaren markoan, zaintza transnacionalak garatzen ari dira, non baldintza prekarioetan ari diran beste herrietatik etorritako milaka andra. Azken baten milaka andrak sufriduten daben esplotazio egoera da hau, atzerriarttasun legeak ahalbideratuta, zaintzen artikulazio prekarioak eta pribatizatuak eraginda" dino komunikatu baten.

Arratiako EAJ-PNVk be adierazpena egin eban, atzerriko andren lan-esplotaziorako egindako ekintza guztiak gaitzesten. "Ez gatoz bat ezelan be personak duintasunaren eta osotasunaren kontrako giza eskubideen urraketa guztiak gaitzesten doguz" dinoe eta arratiarrak konbidatzen ditue holango jardueretik eratorritako oinarritzko eskubideen urraketa guztiak gaitzestera eta "irimo ukatzen dogu andren edo personak duintasunaren kontrako edozein indarkeria".

LEMOA

Lemoako jubiladuen taberna berrizabali

Erredakzioa

Martiaren 25ean zabaldu ebazan barriro ateak Lemoako Nagusien

Etxeko taberneak, zarratuta luze egon ostean. Izan be, Udalak esleipen irekia ipini eban martxan, baina eskaintzarik ez zan egon eta prozedura negoziaduari ekin eutsan. Prezioa zehazteko tramitea amaituta, barri zabaldu dabe taberna.

Taberna bat baino gehiago da Nagusien Etxekoa. "Persona erretiraduentzako alkargunea da taberna hau eta zentzu horretan

behar-beharrezko zerbitzua da" azaldu eban Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

Zarratu zanetik hasi zan Udala barriro zabaldutako prozedura-reagaz jubiladuen alkarteagaz alkarlanean, baina pandemiak eta horren kontrako neurriak prozedura atzeratu arazo ebela dino Ioritz Fernandez, Euskara eta Gizarte Ekintzako zinegotziak.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Neurri barriak COVID-19a dala eta

Erredakzioa

Martiaren 29an, indarrean egozan neurri murriztailei, beste neurri batzuk gehitu eutseezan dekretu bidez. Holan, 100.000 biztanleko 400eko inzidentzia tasa gaintzen

daben herrietan itxiera perimetrala ezarriko dabe eta murrizketak egingo dira ostalaritzan eta kirolean. Arratiako herririk ez egoan egoera horretan, neurriko indarrean sartu ziranean, baina aurrerago inzidentzia tasa hori gaintu ezker,

itxiera perimetrala ezarriko litzateke. Herrien zerrenda astelehenero berrikusteko asmoa dauka Jaurizarik.

Indarrean dagozan neurri murriztaileak dira besteak beste, Erkidegoko itxiera perimetrala, etxeratze agindua 22:00etatik aurrera, lau lagun baino gehiagoko taldeak galarazota egotea, eremu pribaduetan bizikideez osotutako taldeak bakarrik alkartu ahal izatea, aforo mugatuak eta maskara erabili behar izatea.

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Beltza daga jantziz *Bela daga proiektatzen*

- Salmentan zein dotarrian
- Lurrik (erakiteak, landak, basoak...)
- Etebiziak (guztiek, basoak, etxeak...)
- Garaioak
- Laneri komertzialak
- Publizitateak
- Balonazkoak

- Irakin berak erakitzeko
- Inerzioak
- Aktibitate-proiektuak

- Iraun diseinua
- CEE eta IEE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lanbidean Agiri 23, 48941 - Irujo
Telefonoa: 94 601 81 00 - 416 76 26 24
Fax: 94 601 81 00 - 416 76 26 24
www.arratia.es | info@arratia.es

FRAN VALLE DE TARAZAGA

Ubideztarren azterketa genealogikoa egingo dau Aditu Arkeologia kooperatibeak

Fran Valle de Tarazaga Aditu Arkeologia Zerbitzuak enpresako arkeologoak indusketez gainera, azterketa genealogikoak egiten ditu, leku bateko populazioak egindako lekualdatzeen eta familien harreman historikoen gaineko informazio garrantzitsua emoten dabenak. Oin Aditu kooperatibeak, Ubideko aitita-amamaren bat daukien ubideztarrai azterketa genealogikoa egingo deutse doban. Hamahiru herritarrek emon dabe izena, euren familiaren iragana jakin guran. Holan, Ubideko biztanle gehienen arbasoen historiak jasoko ditue.



Fran Valle Aralargo indusketetan.

Erredakzioa

Nor da Fran Valle de Tarazaga?

Nire izen osoa Francisco José Valle de Tarazaga Montero da. Bilboko naz, Deustu auzokoa, nahiz eta nire familia Bilboko (aita Zazpi kaleetan jaio zan), Urduñakoa eta Gueñesekoa (Enkarterrin), eta adar bat Eskoziakoa, izan. Atzerrian urte askoan bizi izan ondoren, ikasketakaitik eta errazoi profesionalakaitik, Euskal Herrira itzuli nintzan, hemendik lan egiteko eta arkeologian aurrera egiteko.

Nire familiak Ubidegaz daukan loturea Gerra Zibilaren ondorioz da. Aitita eta bere anaia, Eusko Gudarostearen batailoi-tako baten egozan eta Ubidera bidali ebezan Vila Realeko eraso zala-eta. 2009an etorri nintzan hona, Ubidera, ikerketa arkeologiko eta historikorako gure enpresa sortu genduan.

Zer ikasi zenduan eta non eta zer beste lan egin dozuz arkeologiaren edo-eta genea-

logiaren inguruan?

Historiako lizentziatura ikasi neban, eta antxinako historiako espezialidade bat. Euskal ikasketetako unibersidade-aditu titulua be lortu neban. Atzerrian egindako egonaldia, formakuntzarako aprobetxau nebazan eta praktika arkeologikoa ikasi neban Oxfordeko Unibersidadean. Han, paisaiaren arkeologian masterra be lortu neban. Ikasketa horreekaz eta beste ikastaro eta prestakuntza batzuek ikerkuntzan jardutea ebatzi neban. Nire bizitza profesionalean, ikerketa proiektuetan lan egin dot, Alemanian, Belgikan, Erresuma Batuan, Israelen eta Espainian, besteak beste. Eta beti saiatu naz nire lana laguntza humanitarioko proiektuak konbinetan. Horrek eroan nau Ekialdeko Afrikara eta Balkanetara. Kosovoko gerra eta beste krisi batzuk bertan igaro nebazan, UNICEFegaz, Nazino Batuek eta OSCEgaz alkarlanean.

Ubiden daukazu enpresea.

Aditu Arkeologia dauka izena gure enpresek, eta kooperatiba bat da. Formula hori hainbat erra-

zoiengaitik aukeratu genduan; garrantzitsuenetarikoa bat zan bere funtzionamentuan nahiko malgua dan sektore baten jente gehiago sartzea ahalbidetuko eban egiturea sortutea, hain zuzen. Arkeologia, lan aldetik eze-gonkorra da eta gure enpresan parte hartzean dabenai egonkortasuna emon gura badeutsegu be, gure enpresek bere proiektuak edo beste lantalde batzukaz loturea izaten daben personak sartzea erraztu gura genduan.

Ubiden bertan sortu zan? Zergaitik arkeologia enpresa bat Ubiden?

Aditu Arkeologia Ubiden sortu genduan 2009an. Hemen egoteko errazoi-tako bat zan Euskal Herrian lan egiten dogun lekuetarako sarbidea erraztea. Nafarroan eta Araban, egiten dogu lan batez be eta Ubidek kokapen ezin hobea eskaintzen dau herrialdeko edozein lekutara denpora gitxian iristeko, gure jarduera gartzeko baldintzak hobetuz.

Udalak be lagundu eban gure egoitza hemen ipinten, eta, horrerri esker, laborategi bat eta bulegoak daukaguz ikerketak egiteko. Gainera, Bizkaian jarraitu gura genduan; ze gure sorreran, Foru Aldundiak barrikuntza teknologikoko enpresa gisa kalifikau ginduzan, arkeologian prospekzio geofisikoaren eta auzite-

giko zientziaren prestakuntzan eskaintzen doguzan teknika eta ekipamentuengaitik. Eta Ubide Arabako mugan dago.

Gure zerbitzuen artean ikerketa arkeologikoa eta historikoa dagoz. Azterketa historikoak, artxibistikoak eta abar be egiten doguz, udalentsat, erakundeentzat eta beste erakunde batzuentzat. Aztarnategiai balioa emoten deutsegu eta ondarea eta historia zabaltzea bilatzen dogu. Helburu horregaz, museoak ezartzen, erakusketak sortzean eta abar lagundu dogu. Ikerketa arkeologikoa ez da, normalean, partikularrai eskaini ahal jakien jarduera bat, baina, askotan, antxinako objekturen bat aztertutea edo ikerketa genealogikoa egitea gura dauan jentea be bajatoriku.

Azaldu egin dozuezan lan edo proiekturen batzuk.

Gure azken proiektua Kuartangoko paisaia dolmenikoaren esplorazioan esku hartzea izan da. Kanpoko proiektua da, baina geugaz kontetan dabe bidezko prospekzio azterketa zehatzetarako, makina oso espezializaduak daukaguzalako. Baina gauza puntual horreezaz gainera, beti izaten doguz zabalik ikerketa sakoneko urte askotako proiektuak. Esate baterako, Orreagako Karlomag-noren siloa, 778. urteko batailan hildako soldaduen gorpuak sartu ziran leku mitikoa eta Nafarroako erresumaren hasikerea markau ebana. Hiru urte daroaguz proiektu horretan, eta gitxienez hiru edo lau urtez luzatzea espero dogu. Igaz, Napoleonen garaian hildako soldaduen gorpuzkinak atera genduzan, Ubidera ekarri eta gure laborategian aztertu genduzan.

Oindino zabalik daukaguzan beste proiektu batzuk honeek dira: Aracaeliko (Uharte Arakil)

etxe erromatarraren azterketa. Erromatarrak eta baskoiak mendeetan zehar Erromatar Inperioan izan eben alkarreragina aztertzen gabiz. Edo Aralarko San Migelen indusketea. Leku horren bilakaera kronologikoa berreragitea espero dogu, sortu zanetik. Gainera, Erdi Aroko hainbat gorpu aztertuta, gure arbasoen profil biologikoa, gaixotasunak eta bestelako inguruarrak finkatu gura doguz.

Ubide herri txikia da, eta ez da 170 biztanlera heltzean, baina Aditu Arkeologiaren laborategian 300 lagun ingururen eskeletoak izatera heldu gara, nahiz eta horreek, jakina, ez diran erroldatzen.

Ubideko jentearen azterketa genealogikoa egiten zabizie, gitxienez Ubideko amamaitita bat daukan jentearena. Holan da?

Bai. Aditu Arkeologiaren ekimena da, baina herri txiki batean, eta udal langilea dan Agurtzane Bengoaren jarkera onari esker, proiektuan parte hartzeako izena emoteko prozesua Udala dan foroaren bidez zentralizau dogu.

Baldintzak beteten dituan zenbat jentek emon dau izena?

Azterketa genealogikoa hamahiru laguneri egingo deutsegu. Ubideko biztanleen ia %10 da, baina kontuan hartuta horreetako gehienak anai-arreba bat edo gehiago, eta oso hurreko beste ahaide batzuk dituela, azterlanak, Ubideko biztanle gehienen arbasoak eskaini ahal izango ditu; azken hiru belaunaldietan behintzat, familia presentzia badaukie herrian, hau da, Ubideko aitita-amama bat gitxienez badaukie.

Zein da azterketa honen helburua?

Hainbat helburu ditu. Lehenik eta behin, doban egiteko errazoa da



Giza gorpuzkinen biltegia Ubideko Adituren laborategian.

herritarrai eskerrak emon gura deutseguzala; oin dala hamar urte baino gehiago hemen jarri genduan gure enpreari sano harrera ona egin eutsielako. Uste dot ondo integratu garala eta komunitadeari zeozer emon gura geuntsan. Beste alde batetik, Ubide lango herri txiki baten, hemen bizi diran persona askoren arteko familia loturearen ziurtasuna dago, eta hori agerian itxi gura dogu, ubideztarrak lotzean dituan familia harreman historikoen barri emongo dauan azterlan baten bidez.

Gainera, azken urteotan, Aditu Arkeologia herriaren beste alderdi historiko batzuk ikertzen ibili da, eta XVI. mendearen hasikeran hartzean dan herriaren jatorria azterketa genealogikoan be islatu daiteke. Gaur egungo Ubideko biztanleen arbasoak biltzean, lehenengo biztanleak nondik joan ziran ikusi leikegu, baita mendeetan zehar etorri diranak be eta nondik. Azterlanak aukerea be emongo deusku herriaren sorreran hemen egoazenen populazionoko "bero-mapa" moduko bat egiteko, eta lagunduko deusku Ubideren hasikerako errazoiak eta profila hobeto ulertzen.

Holakorik egin da beste inon? Nik dakidala ez. Uste dogu Ubidek tamainu egokia daukala ikerketa hau egiteko, eta, gainera, proiektua aberasteko behar dan artxiboko materiala konserbau danez eta eskuratzea badagoanez, parte-hartzaileen gustukoak izango diran emaitzak bermatzen dituala.

Noz arte egingo dozue atzera?

Ikusiko da. Faktore askok erraztu edo gelditu arazo leikie ikerketa genealogikoa. Dokumentu iturri nagusiak erregistro zibila, eta parroikia erregistroak dira. Erregistro zibila XIX. mendearen bigarren erdian sortu zan eta eleizako erregistroak XVI. mendean, Trentoko Kontzilioaren ondorioz. Horreetan, jaiotzai, ezkontzai eta heriotzai buruzko xehetasunak dagoz.

Baina atzerago joatea gatxa da, eta persona arruntan arrastoak, kasu judizialen edo beste egoera berezi batzuen idazkietan baino ez dira topatzen. Persona baten


arbasoak nobleziakoak badira, orduan beste istorio bat da, nobleak euren maila baieztatzen saiatzen ziran leinuaren abolengoaren bidez; beraz, badira dokumentu batzuk familiaren antxinatuzan berba egiten dabena. Kasu horreetan askoz atzerago joan gaitkez denporan. Oin dala gitxi, XVII. mendean nobleziagaz eta Nafarroako XV. mendeko erregeerreginak lotzean zan persona baten azterketa genealogiko baten, Mahoma eta Karlomagnoari no eroan ahal izan genduan bere familiaren historia, adar bitan.

Zer topatzea espero dozue? Persona baten batez besteko profilak XVI. mendera arteko arbasoetara eroango gaitu, eta seguruenik adar batzuetan, apur bat atzerago. Kasu berezietan gehiago egin ahal izango dogu, baina gitxi izango dira.

Gure ikerketea seme-alabetatik gurasoetara baino ez da, hau da, zuzeneko jatorrikoa, ondoko adarrak landu barik. Beraz, persona batez zerikusia daukan azterketa genealogikoan agertzen diran personak, zuzeneko goranzko lerroan agertuko dira beti. Gure azterketa persona talde batena danez, persona bakotxak beste parte-hartzaileen jatorriagaz daukan erlazinoaz be ikusiko da. Batzuetan, aitita-amamak edo birraitita-biramamak partekatuko ditue, edo, akaso, anaia, lehengusu-lehengusina, osaba bosgarren aitona eta abar izan daitezke.

Jakina, kasu batzuetan erregistroak ez dagoz osotuta eta ezin dogu familia lerroen baten aurrera egin. Edo personea gure jarduera eremutik ateratzen bada, agian ez dogu lerro horreetarako sarbiderik izango. Ha-ta guzti be, arbasoak Ubide ixten dabenean be, ikertzen jarraituko doguz. Holan, azterketan Otxandioko, Zeanuriko, Dimako, Igorreko eta abarreko arbaso asko be agertuko dira. Hau da, nondik etorri ziran Ubidera.

Ikerketeari ekin deusagu da borduko, eta gaur egun, ia 2.000 lagun daukaguz ikerkuntzan; horreetako asko Ubidekoak dira, baina beste batzuk leku askotakoak, batez be Arratia bailarakoak.



1798ko parte-hartzaile baten arbaso baten jaiotza abiapuntua.

Beste leku batzuetatik datozen lerroetara zabaltzeak aukerea emoten deusku oin be ikusteko biztanle gehienak bizkaitarrak dirala, nahiz eta Arabatik hain hur egon. Baina zenbat eta gehiago urrundu denporan, orduan eta gehiago ikusiko da Ubideko biztanle gehienak Otxandiotik eta Lenizko haranetik etorri zirala. Parrokiako erregistroak eta erregistro zibilak emon ahal deusku informazioaz gainera, beste artxibo batzuetan be bilatuko dogu informazioa: hauteskunde-errolak eta polizia-errolak, fogerazioak, egunkari zaharren hemerroteka eta bestelako informazioa emon ahal dabene beste dokumentu batzuetan. Holan, jakin ahal izango dogu, esate baterako, ea jente horrek irakurten eta idazten ekien, euren lanbideak, bizi ziran etxeak, epaitegietako kasuak, eta abar, txostenari

alderdi entretenigarriagoa eta gizatiarriagoa emonez.

Gauza bitxiak topauko dozue, dudu barik.

Bai, badaukaguz batzuk. Esate baterako, azterketan parte hartutako baten aitita Gasteizen toreatzen eban gremioak mende hasikeran egiten ebezan zekenketetan, eta egunkarian adierazoten dau bertan behera itxi ebezela "auzo-lotsagaitik", eta horrek toreatzaile gisa eukan trebezia eskasa adierazoten dau. Edo XIX. mendean epaimahai batek neska bateri emondako berbeari huts egiteagaitik ezkondu behar izan eban arbaso baten kasua, neska haurdun itxi ostean. Eta badira, gerra karlistak euren ekonomian eragindako kalteak konpensetako eskatzen eban familiak, edo diputazioari bidezain-peoi lanpostu bat eskatzen eutsienak...

Mendeak emoten deusku informazioaz familiagaz partekatze eta momentu onak pasetako aukerea emoten dabene familia istorio ugari agertuko dira. **Beste proiekturik badaukazue? Erakundeak alkarlanean zein bakarrik egitekoak?** Beti gagoz prest udalakaz edo ikerketa historiko proiektu on bat proposau gura dauenagaz lankidetzan jarduteko. Egia esan, gaur egungo pandemiak kalte ekonomiko handia eragin badeusku be, ekimen horreek aurreratzeko denporea be emon deusku; izan be, aurrekontu edo finantzaketarik izan barik, beti egoten dira baztertuta, gauzatzeko denporea izan arte.

Ubidera heldu ginanetik, herriaren historiari buruzko informazioa biltzean ibili gara, eta hainbat ekimen daukaguz pentsautan; esate baterako, Ubidek Gerra Zibilean izan eban zeregina ezetuten emoteko erakusketa bat, urte honeetan bildu dogun informazio guztiagaz. Gure proiektuak beti saiatzen dira personen eginkizuna islatzen, eta Ubiden bizi diranai aukerea emoten deusez aurrekoen zenbat gauza partekatzen dituen jakiteko.

Mendeak emoten deusku informazioaz familiagaz partekatze eta momentu onak pasetako aukerea emoten dabene familia istorio ugari agertuko dira

FUTBOLA

Arratia jaitsiera fasea
jokatuten dabil

Erredakzioa

Arratia taldeak partidu bi jokatu ditu martiako bigarren hamabostaldian. Ligako lehen zatiko atzena eta bigarren zatiko lehena, atzen hau jaitsiera fasekoa.

Martiaren 20an Aurrera de Vitoriaren kontra jokatu eban etxetik kanpo eta 1-0 galdu eban. Arratiak, aurreko lau partiduetan garaipen bi eta bardinketa bi lortu ebazan, bosgarrenean ostera galdu egin eban. Hilaren 27an Castejon taldearen kontra jokatu eban Arratiak etxetik kanpo eta 1-0 galdu eban.

Sailkapenean atzenurrena da 9 puntugaz eta ez jeisteko helburuagaz puntu gehien egiten saiatuko dira hurrengo partiduetan Arratiakoak.

Datorren partidua Berriozar taldearen kontra jokatuko dau Arratiak Igorren, aprilaren 2an, 12:00etan.

Igaz hasi zan dana okertzen

Jokalari izandako Naia Totorikak, A taldeko ordezkaria eta neska nagusien talde bien koordinatzailea Naia Bilbaogaz batera, BEGITU azaldutakoaren arabera, gauzak igaz hasi ziran okertzen. Aurreko

denporaldia, konfinamentuak eten egin eban bat-batean; "aidean gelditu zan dana eta amaiera txarra izan zan" dino. Ondoren, jokalaria askok itxi egin eben taldea. "Batzuek beharragaitik, beste bat ama izan zalako, Amaia Aldayk pelotea dala-eta itxi behar izan eban, beste bat beste ekipo batera joan zan, nik be belauna dala-eta, itxi behar izan neban..." eta bat-batean jokalaria piloa falta zan taldean. Entrenatzailea be aldatu egin zan eta "asko kostau zan ekipoa lortutea".

Taldea osotuteko, kanterako jente gaztea hartu behar izan eben, kade teetatik zuzenean sartu zana be badago. Eta esperientzia falta hori igarri egin zala dino Totorikak. Aldaketa horreekaz guztiakaz, liga hasi zanean emaitzak oso txarrak izan ziran.

Baina taldea horri buelta emoten hasi dala emoten dau eta lau partidu segiduan galdu barik egin ebazan Aurrera de Vitoriaren kontra galdu aurretik. "Ez da erraza izango baino helburua ez jeistea da. Pentsetan dogu lortu ahal dala. Gauzak atzen hile biotan legez egiten badabez nik pentsetan dot posible dala".

ERRUGBIA

Arratiako errugbiaren
panoramea argituten doa
Gernikako taldeagaz bat
egin ondoren

Arratiko Zekorrek Rugby Taldeak urteak eroiazan jente gitxigaz eta taldea desagertzeko arriskuan egoan. Oin dala urte bi, Arratiko senior taldeak Gernika B taldeagaz bat egin eban. Aurten, Gernika B-Arratiko hirugarren da sailkapenean eta Arratiako jokalaria barriak be animau dirala Gernikan entrenetan dino Jon Gurtubai jokalaria eta entrenatzaileak. Panoramea asko argitu dala dino.



Jon Gurtubai San Txisme zelaian.

Erredakzioa

Aurten liga berandu hasi da. Normalean urrietan hasten da eta aurten, pandemia dala-eta, urtailan hasi da. Hori dala-eta bagilera arte luzatuko da, normalean mar-

tian edo aprilean amaituten dana.

Gernika B-Arratiko taldeak Euskal Ligako lehenengo mailan jokatuten dau. Bederatzi talde dagoz maila honetan eta lehenengo zatia, partidu bakarrera jokatuten da. Bigarren zatian, hiru talde egiten

dira eta horretan bueltako partidua be jokatuten da taldeko beste bi taldeakaz.

Momentu honetan, lehenengo zatian dagoz. Gernika B-Arratikok 6 partidu jokatu ditu eta bat dauka jokatu barik. Sei partidutik hiru irabazi ditu. Sailkapeneko hirugarren postuan dago eta bigarren be izan da. Datorren partidua, lehenengo zatiko azkena izango da Sarako Izarraren kontra Igorren.

Beste taldeakaz

Senior taldeak Gernika B-gaz bat egin dau eta beste kategorietan be "beste dinamika bat dago: Gernika, Elorrio eta Arratiko batera". Aurten kategoria horreez jokatu ez badabe be. Igorreko errugbi zelaian entrenetan dabe seniorrak astelehenetan eta eguaztenetan 19:00etan, eta gero 15 egunik behin Gernikara joaten dira barikuetan; eta 15 egunik behin Gernikakoak datoz Igorrera. "Azkenengo urteetan oso jente gitxi egon da eta jentea, itxi guran, baina arrastretan, ze azkenean ez dogu gura taldea desagertzea eta erabaki genduan Gernikako bigarren taldean be jente gitxi egoanez eta eurari be ondo etorten jakinez, bioi interesetan jakun akordioa egitea".

Akordioaren emaitza ona izan dala uste dau Gurtubai; "Aurreko urtean sano ekipo deskonpensaua geunkan. Jente oso nagusia edo jente oso gaztea eta esperientzia barik. Eta beterranoak Gernikara joaten ginan. Aurten esperientzia gitxiko jokalaria animau dira Gernikara joaten eta Igorrera be, entrenamentuetara badabil jentea etorten. Atzen urteetan euki dogun panoramea asko argitu jaku aurten".

Neska talderik ez dago, baina neskaren bat animauko balitz entrenetan zabalik dagozala dino Gurtubai.

LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET



LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 31 03 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



QUALITY & STRENGTH YOU CAN TRUST












PELOTEA

Danel Elezkano eta Oier Etxebarriak lehen postuan jarraitzen dabe



Danel Elezkano.

Erredakzinoa

Elezkano II.ak eta Zabaletak Urretxun jokatu eben oin arteko azken partidua martiaren 26an Urrutikoetxea eta Aretxabaletaren kontra 22-13 emaitzagaz. Aurreko partiduan, martiaren 19an Bilbon jokaturakoan, Peña II. eta Albisuren kontra 15-22 galdu eben arren, Binakako Txapelketako sailkapenaren lehenengo postuari eusten deusie 10 partidu irabazita.

Promozino Mailako Txapelketan be, Oier Etxebarria Igorrekoa eta Salaberria sailkapen buru dira hamabi partidu irabazita. Atzena Lekeition jokatu eben martiaren 27an, Zubizarreta III. eta Uriondoren kontra, 22-7 irabaziz. Azkenurreko partidua be irabazi egin eben Alberdi eta Salaverri II.aren kontra Iruñean 14-22ko emaitzagaz. Binakako Promozino Txapelketan partidu gehien irabazi dauan bikoa da Oier Etxebarria eta Salaberriarena.

KIROLAK

Hainbat talde eta kirolari Euskal Selekzinoen ofizialtasunaren alde

Kirol diziplina desbardineta Arratiako hainbat kirolari eta alkartetako kide "Gu ere bai" ekimenera batu dira, euren kiroletan Euskal Herriko Selekzinoan eta modu ofizialean lehiatu ahal izateko.



Batzarrera hurreratutako kide batzuk.

Erredakzinoa

2018an sortutako Gu ere bai ekimenak, kirola eta herri konzeptuak ditu ardatz, kirolaren bidez, Euskal Herria herri moduan agertzeko munduan.

Patxi Gaztelumendi Gu ere bai ekimeneko kideak azaldu ebazan Igorren, ekimenaren helburuak, ibilbidea eta aurrera begirakoa. Antolakuntzak konbidautu, aurkezpena Jon Gurtubai, Arratiako Zekorrak errugbi taldekoa; Ruth Linaza herri kirolaria eta Badaiotz sokatira taldeko tiralaria; Xabier Atutxa, Igoerreko pelota eskolako presidentea, Asier Larrakoetxea, Arteako moto gidaria, Lur Ziarrusta, pelotaria, Eñaut Intxaurrea Gorbeia Suzien mendi lasterketako antolakuntzako kidea eta Iñigo Iruarizaga Areatzako Kultur eta Kirol Batzordeko kidea hurreratu ziran.

Euskal Selekzinoak ofizialak izateko, behar dan gauza bakarra Espainiak ezetz ez esatea da. 2022an, mundu mailako hainbat txapelketa egongo dira eta ordurako ofizialtasuna lortzea da hel-

burua. Horretarako, Euskal Herriko kirolariak parte hartzean daben ekitaldi garrantzitsu guztietan egongo da Gu ere bai, "euskal kirola" konzeptua zabaltzen eta euskal kirol zaleen sarea bultzatzen.

2021eko euskal kirolaren egitaraua

Apirilaren 3an jokatu da Sevillan, futboleko Espainiako Errege Kopako finala, Athletic eta Errealaren artean. Gu ere bai-koen eretxian une historikoak biziteko aukerea emongo dau honek kirol mailan eta herri legez. "Zaleak, kirolzaleak, herritarrak batu eta gogoz animauko doguz euskal talde biak: herri bat batera" dinoe euren webgunean. Ikurriñak balkoietan ipinteko eskatuten dabe.

Futbolari jagokonean be, aurtan be bideojokoa antolatu dabe Euskal Liga 21 izenpean, Fifa 21 aplikazioa baliatuz. Finala apirilaren 4an jokatu da zuzenean Hamaika Tebistean.

Andra futbolarien Euskal Selekzinoak nazinoarteko partiduak jokatu ditu eta hau ofizialtasuna

egunez, Euskal Herrian zehar ibiliko da *handbike*-en kirolari bat, Euskal Selekzinoen ofizialtasunaren aldarrikapenak ikusgarri egingen. Itsasoan eta mendietan be, beste kirolari batzuek aldarrikatu dabe ofizialtasuna.

Uda partean, Eurokopa izateko da Bilbon eta hor lan "diplomatiko" egingo dau Gu ere bai (dossierak, prentsurrekoak, eta abar). Frantziako Tour-ean konzentrazioa egingo dabe, Tourmalet-en. Mendi martxetan, eta Belgikako *one wall* pelota partiduetan be egongo dira euskal kirolariak eta zaleak euren aldarrikapenak egiteko aprobetxauko dabe.

Udagoienean, ekimeneko partaideak hitzordua daukie Kontxako estropadetan eta Getxon egingo dan Sokatirako Munduko Txapelketan. Bertan, Euskal Herriko lau taldek eta Selekzinoak hartuko dabe parte. Sasoi honetan hasiko dira ekimeneko ofizialtasunaren atzen fasea prestatzen.

aldarrikatzeko aprobetxauko dabe.

Futbolaz gainera, Euskal Herriko Itzulia, txirindularitzako proba be izango da apirlean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kaminoetan eta ekimeneko zaleak euren aldarrikapenak ikusgarri egingen dituko dira.

Aprila intensoa bada, maiatza kaketat jotzen dabe ekimenekoak, eta Euskal Herri osoko ekimen bat antolatuko dabe Bilbon. Gainera, hilaren erdialdean, zazpi



Gure ikastetxeak
Euskalduna kalidazkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezuuntza
Lehen Hezuuntza
Darrigorrezko Dagarren Hezuuntza
Datxilergoan
Hezuuntza Zuloan
2 urtatu 18ra

KONTZERTUA

Eñaut Elorrietaren kontzertua Igorren

Erredakzioa

Aprilaren 10ean, Eñaut Elorrietak *Irteera argiak* bere bakarkako bigarren diskoaren kantuak joko ditu Igorreko Lasarte Aretoan 19:00etan. Bere diskorik personalena da eta atzen urteotan bizi izandakoak kontetan ditu bertan.

Bederatzi kantu dagoz disko honetan eta heriotzea, maitasuna eta zaurgarritasuna lan-go gaiak tratetan ditu. Musika erritmiko eta melodiko ederrari lagunduteko, kantu batzuen hitzak Elorrietak berak egin baditu be, badagoz beste batzuk Uxue Alberdi, Joseba Sarrionandia,

Bernardo Atxaga eta Jose Luis Otamendi idazleenak diranak be.

Eñaut Elorrieta

Eñaut Elorrieta Ken Zazpi talderen sortzaileetako bat izan zan, Jon Mikel Arronategigaz batera 1996an. Ken Zazpi taldeak urte askotako ibilbide luzean, 9 disko kaleratu eban. Ezagunen ar-tean, *Bidean* edo *Ortze mugak begietan* dagoz. Euskadiko Orkestra Sinfonikoagaz grabau eben disko bat 2013an.

Urte berean, Elorrietak bakarkako bere lehen diskoa *Deserriko kantak* kaleratu eban.



ZINEKLUBA

Zinekluba aprilaren 15ean

Erredakzioa

Hileko lehenengo egunean izaten da Igorreko Zinekluba, baina Aste Santuko oporrak dirala-eta, oingoan hilaren 15ean izango da. Egun horretan, 19:00etan, Hafsteinn Gunnar Sigurosson zuzendari islandiarraren *Buenos vecinos* filma egongo da ikusgai Lasarte Aretoan. Bost herrialderen arteko koproduzioa da, -Islandia, Polonia, Danimarka, Alemania eta

Frantziako- eta Hamptons nazinoarteko film jaialdiko pelikula onenari saria jaso eban 2017an.

Sinopsia

Andregaiak adulterioa leporatuta, gurasoen etxera joan behar izan dau gizon batek. Lau urteko alabearen zaintza lortzeako burrukan dabilen bitartean, zugatz zahar eta eder bat dala-eta gurasoen eta auzokoen arteko eztabaidan murgiltzen doa apurka-apurka.



PASTORALA

Mitologiaren gaineko Pastoral estrenau eben Dimako Ugarana eskolako ikasleak Bilbon

Emozino handia egoan estreinaldi egunean Bilboko Bizkaia Aretoan. Estreinaldia 2020ko martiaren 27rako egoan aurreikusita eta gero maiatzaren 22ra atzeratu zan. Ezin izan zan egin. Atzenean, 2021eko martiaren 19an izan zan eguna.



Dimako seigarren mailako ikasleak.

Erredakzioa

Dimako Ugarana Herri Eskolako 6. mailako ikasleak, Loraldia Eskolak antolatutako ekitaldian antzeztu eben jentaurrean Pastoral eta publikoaren txalo zaparrada handia jaso eban ikuskizunak. Gidoia Zefe Ziarrustak egin eban eta bertsoak Ibon Izak.

Pastoralak egungo eredu konsumista eta naturaren arteko gatazka kontetan dau. Pastoral guztietan legez, personaje batzuk onak dira eta besteak gaiztoak. Alde onean, herritarrak eta personaje mitologikoak dagoz; alde txarrean,

autoridadeak eta natura errespetetan ez dabenak. Personajeak bertso doinu desbardinatan abesten dabe, bakoak dauka bere doinua. Narratzaileak barriz, Pastoralaren doinuan. Musika talde txiker bat be badago antzezeen sarrera eta urtekerak marketako. Pastoralak, Dimatik, ibilbide historiko-mitologikoa egiten dau gaur egunean amaituteko La Basu-ren hip-hop estiloko talde jantza bategaz.

Loraldia Eskolako proiektua

Proiektua Loraldia Eskolatik sortu zan. Loraldia Eskolako koordinatzailea astean behin

eskolara joan arren, umeak eurrak hartzean dabez ebatziak. Proiektua egiteko, sortzean da zuzendaritza talde bat, eszenografia taldea, jantza taldea, antzezele taldea, ikus-entzunezkoen proiektuoen lantaldea, musika taldea, jantziak margozten dabenak... "Eta talde horreetan sartzeako egiten dira autoezagutza eta kolektiboa ezetuteko dinamikak. Izan be, umeak jakin behar dabe ze gaitasun eta ze muga daukiezan eta horren arabera ze taldetan egongo diran gusturen. Eta kolektibo aldetik be bai" azaldu eutsan BEGITURI igaz Loraldiako koordinatzaileak.

Loraldia Eskola Loraldia alkar-tearen ildo bat da. Bere helburu nagusia, kultura, batez be kultura garaikidea transmitidutea da eta horretarako oso garrantzitsuzat jotzen dau eskola komunitatean lan egitea. Urtero, proiektu bi ateraten dira aurrera.

Dimako eskoleak proiektu honetan parte hartu ahal izateko, Udalak lagundu dau diruz.

batzuk egon ziran euren lan esperientzia azalduten: sukaldari bat, mediku bat, kartografoa, meteorologoa eta abar.

Tailerrak, dokumentalak eta kanpoko ekintzak

Tailerrai jagokienean, *Autodefensa feminista* tailerra egon zan neskontzat eta Basque Cybersecurity Center eta Pantallas Amigas-ek, zibersegurtasuna, *fake news* edo albiste faltsuak, sareen bidezko jazarpena eta abar landu eben.

Dokumental bi ikusteko aukerea be izan eben, *Zuk* eta *Jantzari*, eta Agustin Alkhat musikari lapurtarrak bere kantu batzuk jo eta ikasleak egon zan berbetan Eusko Jaurilaritzako Musikariak Eskolan programearen barruan.

Astea jaialditxo bategaz amaitu zan. Han, zirku emonalditxo, trikitixea, jantzea eta antzerkia egon ziran besteak beste.

Aste osoan zehar Kultur Etxeko Erakusketa Gelan ikasleak egindako hainbat lan egon ziran ikusgai.

KULTURA ASTEA

Ekonomia zirkularra edadekoakaz landu dabe Arratia Institutuko ikasleak

Erredakzioa

Martiaren 22tik 26ra Kultura Astea antolatu eben Arratia Institutuan. Tailerrak, berbaldiak, pelikulak eta musikeak osatu eben gai ugari landuten eban egitaraua. Ekonomia zirkularra landuteko, edadekoakaz hausnartuteko eta euren esperientziak jakiteko aukerea izan eben.

Izan be, edadekoak ekonomia zirkularrean bizi izan ebela euren gazte denporea dino Galder Olibares Institutuko irakasleak; "ordu ez zan ezer botaten eta dana berberabilten zan. Gazteak barriz, erabili eta bota kulturaz hazi dira". Pelikula bat ikusi eben gazteak eta zaharrak bakoak bere aldetik, eta hausnarketea egin ostean, batu

ziran euren eretxiak eta esperientziak partekatzeke. Egun batzuk lehenago, Institutuko ikasleak Igorreko erreka bazterretan plastikoa batzean egon ziran eta ondoren, Maider Iturriondobeitia unibersidadeko irakasleak plastikoen gaineko berbaldia emon eban.

Berbaldiai jagokienean, ugari eta sano gai desbardinatutakoak entzun izan ditue Institutukoak; esate baterako, Jose Mari Agirretxe Porrotx pailazoa egon zan Institutuan Kultura Astean. Matxalen Legarreta unibersidadeko irakasleak, *Nork garbitzen du komuna gurean?* berbaldiagaz sexuaren arabera banandutako eginbeharren gainean jardun eban.

Lehenengo egunean, guraso

ANTZERKIA

Zoaz pake santuan antzezlan Lemoan

Begoña Bilbao Lejarzegik zuzendutako *Zoaz pake santuan antzezlan*, apirilaren 17an, zapatua, 19:00etan, izango da kiroldegian Lemoako Udaleko euskera arloak antolatuta.

Erredakzioa

Izena hilaren 6tik 13ra (15:00ak arte) bitartean emon behar da www.lemoa.net helbidean. 150 lagunentzako dago lekua eta aforoa gainditu ezker zozketea egingo da. Txalo Produzioak konpainiak taularatuko dau Emmanuel Robert-Espaliek sortu-

tako eta Martin Agirrek itzulitako lan hau. Aktore lanetan, Ane Gabarain eta Mikel Laskurain izango dira.

Sinopsia

Ezuste betetako komedia da. Andra-gizonak daroen "bikote bizimodu aspergarriagaz amaituteko, andreak zirt edo zart gi-

zona pozointzea ebatzi dau. Egin gura dauana aitortuko deutso gizonari baina aurreikusitako plana hankaz gora joango joko".



MUSIKEA

Musika eskolako umeak aurten ez dabe ipuin musikatua antzeztuko

Erredakzioa

Data honeetan, bigarren hiruhi- lekoa amaitzean, Arratiako Mu- sika Eskolako ikasle eta irakas- leak ipuin musikatua antzezteko azken entseguak egiten egoten ziran eta Kultur Etxera gauzak

eroaten saio bi antolatuteko. Aurten ez dabe holango emonal- dirik egingo.

Ha-ta guzti be, osasun egoerak eta neurriak baimenduten bada- be, ikasturte amaieran, formato txikiagoko kontzertuak emoteko asmoa daukie. Maiatzean, urtero lez, ikasle barrientzako matrikula- zinoa zabalduko da.

Ipuin musikatua zuzenean emon beharrean, Kultur Etxean grabazioa egiteko posibilitadea be aztertu ebela azaldu deutso BEGITURI Izaskun Arriaga Musika Eskolako irakasleak, baina 200 ume inguru mobidu behar dira eta osasun egoerea eta neurri murriztaileak kontuan hartuta, ez egitea ebatzi eben. Ikasturte amaieran barriz, gurasoak umeak

ikasi dabena ikusteko, formatu txiki-ko kontzertu laburrak egite-ko asmoa daukiela dino Arriagak, "aforo mugatuagaz, jente askorik ez inpliketako".

Hartutako neurriak musikea- ri onurarik ez

Ikasturteko lehenengo hiruhi- leko biak eskolak aurrez aurre ahalik eta modurik normalenean emoten saiatu dirala dino irakas- leak, baina "ezin dira gauzak konpartidu, maskarea jantzita kantau behar da edo musika tresnak jo eta segurtasun distan- tziak gorde behar dira. Horreek gauzok ez dabez lagunduten klasearen garapenean". Ikasleak sano kantsauta dagozala be dino, gainezka eginda moduan.

FILMA

Berri txarrak taldearen azken bira jasoten dauan filma Igorreko Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Aprilaren 18an, 18:45ean, Mari- na Lameiro zuzendariaren *Dar- dara* pelikulea egongo da Igorre- ko Lasarte Aretoan.

Hogeta bost urteko ibilaldia egin ostean, Berri Txarrak-ek "gel- dialdi mugabakoa" egingo ebala emon eban jakitera eta agurtzeko mundu zabaletik zehar bira bat egingo ebala. Bira hori jasoten dau Marina Lameiroren filmak.

Berri Txarrak taldea 1994an sortu zan Lekunberrin (Nafarroa). Gorka Urbizuk (gitarra eta abo- tsa), David Gonzalezek (bajua) eta Galder Izagirrek (bateria) osotuten eben taldea. Ibilbide luze horretan, estilo ugari landu ditue, erraz ezagutzekoa dan Be-

erri Txarrak-en estiloa lortu arte. Bederatzi disko kaleratu eta mila kontzertu baino gehiago emon ditu mundu osoan Berri Txarrak- ek, arrakasta handiz. Euskal kul- tureari egindako ekarpenagaitik Adarra saria jaso eban taldeak.

Marina Lameiro

Marina Lameiro (Iruñea, 1986) zuzendariak, hainbat dokumental ekoitzi, idatzi eta zuzendu ditu. *Dardara* bere bigarren dokumen- tal luzea da; *Young & Beautiful* (2018) izan zan lehenengoa. Au- rretik film labur batzuk be egin ebazan, *300 Nassau*, barbarako.

2017an, Ione Atenea eta Garazi Erburugaz batera andra zuzen- dariak bultzatzeko Hiruki filmak ekoiztetxea sortu eban.



DUNBA

Azkenean Pastoralak aurkeztu dogu!

Dimako Ugarana Herri Eskolako 6. mailako ikasleak

Pasa dan ikasturtean, Loraldia alkar- tetik Pastoral bat antolatu eta aurkez- teko proposamena izan genduan. 2020ko martian egitekoa zan.

Hasieran, gure eskolako LH5 eta LH6-koak batera egiteko izan ginan, baina koronabirusagaitik ezin izan genduan gure proiektua aurre- ra eroan. Ikasturte honetan barriro ekin deusagu lan honeri, oingoan, igaz LH6-koak ziranak Institutuan dagozanez, geuk bakarrik egin dogu. Zailtasun handia izan da gu- retzat aurreko urteko prestakuntza

guztia barriro moldatzea eta anto- latzea, izan be, igaz 35 ikasle ginan eta aurten 19 bakarrik.

Gure pastoralak euskal mitologiari buruzkoa da, horregaitik *Jainkosen amalurra* deitzean da. Pastoralean parte hartzaile desbardin asko dagoz: antzezleak, musikariak... Honeek dira agertzen diran perso- naiak:

Antzezleak: Gaiztoak: aguazila, alkatea, ehiztaria, abadea eta jaun- toxa. Onak: Basandere eta heritar- bi. Eta narratzaileak.

Antzezleez gainera beste hainbat parte hartzaile be badagoz: jantza- riak, zirkukoak, txibatoa, musikariak,



eszenografiakoak... Nahiz eta ba- tzuk, oholtzaren gainean antzezten ez ikusi, oso garrantzitsuak dira gure Pastoralean.

Eskulanak be egin genduzan, eszenalekuan ipinteko: Gure ta- mainako arbolak, farolak... material guztia kartoi berrerabiliaz egin- dakoa da. Material honetaz aparte beste asko bilatu egin behar izan dogu; musika tresnak, antzeleen erropak, dekoraziorako altzariak...

Martiaren 19an Bilboko Bizkaia

Aretoan eguerdiko 12:00etan es- treinaldia izan genduan. Bizi dogun egoerea kontuan izanda, aretoa ezin zan ehuneko ehunetan beteta egon eta antzezteko orduan mo- sukoak erabili behar izan doguz. Badakigu, martiaren 12rako sarrera guztiak agortuta egozana. Abusu ikastolako DBH 3. mailakoak ikus- entzunezko lan bat aurkeztu eben gurearen ostean.

Goizeko 09:00etan eskolako sarreran autobusa hartu genduan

eta Bilborantza abiatu ginan. Espe- rientzia barri bat izan da guretzako, emozinoz bete eta oroitzapen polit honek asko iraungo deuskula espero dogu.

Oso urduri egon ginan, gure familikoak eta lagunak hunkituta ikusi genduzan eta horrek gu be asko hunkitu ginduan. Proiektu honetan sartu baino lehenago ez genkian zehatz-zehatz zer zan Loraldia alkarteak, oin bada- kigu kultur alkarte honek Bilbon, udabarrian, urtero-urtero hainbat ekin- tza antolatzen dituana.



AGENDA

APRILAK 1
AREATZA

Udabarri osoan ekintza autogidatua. Arrabako zelaietan mendizaletasuna sustatzeko proba jolasa. Beharrezko materiala jaso Parketxean. Izen emotea 94 673 92 79 edo gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus.

Hilaren 11ra arte, Gorbeia inguruko artisau produktuen erakusketa Parketxean.

ARTEA

Aprilaren 9ra arte, ume eta gazteentzako Ipuin Lehiaketa. Euskeraz, gaia libreza izango da. Haurren kategoria 8 urtetik 12 urtera; gazteena, 13 urtetik 17 urtera. Sariak: umeen kategorian, 1. saria 75 euroko bonoa, 2.a 50 eurokoa; gazteen kategorian, 1. saria 100 euroko bonoa, 2.a 75 eurokoa. Lanak artekultura@bizkaia.org helbidera bialdu behar dira. Sari banaketea apirilaren 24an izango da.

LEMOA

Hilaren 7ra arte, apirilaren 9an 12 eta 16 urte bitartekoak padelean jokatu izen emotea 688 676 908 telefonoan.

APRILAK 4

AREATZA/ARTEA/ZEANURI

13:00etan, Aberri Eguna. Konzentrazioa Areatzako plazan. 12:00etan, Artea eta Zeanuritik Areatzara. Euskal Herria Baterak antolatuta.

IGORRE

16:30ean, zinea, *Kranston ikastetxea: munstroen eskola*; 18:45ean, *Y lloviéron pájaros* Lasarte Aretoan.

APRILAK 6
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta itxeko.

ARTEA

11:00etatik 12:30era, 2001etik 2004ra jaiotakoak eta 12:30etik 14:00etara, 2005etik 2008ra jaiotakoak, hilaren 9ra arte, jantza moderno ikastaroa.

Hilaren 13an egongo dan oin eta behatzen estetika zerbitzurako izen

emotea udaletxean edo 94 673 92 05 edo 94 673 92 17 telefonoetan.

IGORRE

18:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Gure burua ezagutzea eta ahalduntzea argazkilaritzaren bidez* ikastaroa Kultur Etxean.

Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo *liburu.igorre@gmail.com* helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

LEMOA

Hilaren 13ra arte, 17an izango dan *Zoaz pake santuan* antzezlanerako izen emotea www.lemoa.net webgunean.

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

APRILAK 7
LEMOA

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon; 17:30etik 18:30era, eguaztenetan, gimnasia gidatua edadekoentzat Kiroldegian. Aurretiaz izena emon behar da.

16:30etik 17:15era, Udalak antolatuta, Oingabiz programearen barruan, ariketa fisikoa eta kirola gazteen artean

sustatzeko doako saioa kiroldegian. Saio bakoitzean 10 personako taldeak gehienez izango dira eta taldeak kurso berekoak. Izena banaka emon behar da www.lemoa.net webgunean.

APRILAK 8
IGORRE

19:00etan, Eukaliptoaren eraginari buruzko mintegia Kultur Etxean. Partaideak: Euskal Herriko Unibertsitateko Arturo Elosegi katedratikoa, Lurgaia Fundazioko Jon Hidalgo, Txomin Diaz mendi ingeniaria eta Patxi Olabarrieta Arratiako lur jaubea.

APRILAK 9
AREATZA

18:00etan, Zirika zirkus taldearen *Zinemaz blai* ikuskizuna komentuan. Izena Areatza Urtaroka webgunean edo udaletxeko 94 673 90 10 telefonora deituta emon.



LEMOA

17:00etan, 12-16 urte bitartekoentzat, padelera jokatzera, padel pistetan.

APRILAK 10
ARRATIA

12:00etan, alkarretaratzea Gorbeiko kurutzean Sarek antolatuta.



IGORRE

19:00etan, Eñaut Elorrietaren kontzertua Lasarte Aretoan.

APRILAK 11
IGORRE

16:30ean, zinea, *Raya y el último dragón*; 18:45ean, *Non dago Mikel?* Lasarte Aretoan.

APRILAK 12
ARTEA

12tik aurrera, astelehenetik barikura, 16:00etatik 19:00ak arte ludotekea zabalik.

BEDIA

16:30etik 19:30era, "Egutegia: Bediako ohiturak erakusten" Lehiaketarako izen emotea liburutegian.

LEMOA

09:30etik 11:00etara, astelehenetan,

Non dago Mikel? dokumentala
Igorreko Lasarte Aretoan

Aprilaren 11n ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan, 18:45ean.

Non dago Mikel? Amaia Merino eta Miguel Angel Llamasek idatzitako eta zuzendutako dokumentala da. 2020ko Donostiako Zinemaldian estreinau eben. Dokumentalak, Espainia mailako politikan torturen gaia mahai gaineratzea lortu dau, Mikel Zabalzaren heriotzatik 35 urte pasau diranean.

Filmak 1985. urtean Mikel Zabazari gertatu jakona kontetan dau: Guardia Zibilak ETAko militante batek nahasi eta atxilotu eban, eta desagertuta emon ebazan hogeitun egun. Bersino ofizialaren arabera, Guardia Zibilak atxilotuta eukala, zulo baten barri emotera joiala, bere buruaz beste egin eban. Gizartean, baina, beste bersino bat nabarmendu zan: torturen ondorioz hil zala, torturaut hil ebela Zabazala. Harekin batera atxilotutako lekukoak berretsi egin eben bersino hori.

Dokumentala estreinau zan asteen, 2021eko zezeileko 26ko asteen, hain zuzen be, Mikel Zabazala Intxaurrendon torturaut hil ebela frogatzen dauan grabazioa zabaldu eban Publico egunkari digitalak.



Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako ibilaldi gidatuak nagusientzat Gudarien parkean, aldeztu aurretik izena emon barik; 11:00etatik 13:30era astelehenetan, orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon.

APRILAK 13
ARTEA

Oin eta behatzen estetika zerbitzua.

IGORRE

18:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Gure burua ezagutzea eta ahalduntzea argazkilaritzaren bidez* ikastaroa Kultur Etxean.

APRILAK 14
LEMOA

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon; 17:30etik 18:30era, eguaztenetan, gimnasia gidatua edadekoentzat Kiroldegian. Aurretiaz izena emon behar da.

16:30etik 17:15era, Udalak antolatuta, Oingabiz programearen barruan, ariketa fisikoa eta kirola gazteen artean sustatzeko doako saioa kiroldegian. Saio bakoitzean 10 personako taldeak gehienez izango dira eta taldeak kurso berekoak. Izena banaka emon behar da www.lemoa.net webgunean.

APRILAK 15
IGORRE

19:00etan, zinekluba *Buenos vecinos* Lasarte Aretoan.

APRILAK 16
DIMA

18:30etik 20:30era, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Ahizpatasuna gure gorputzean* tailerraren lehenengo saioa Eurne Epelde trebatzailearen eskutik eskolan.

IGORRE

19:00etan, Jon Maiaren berbaldia *Emigrazioetik bertsoaritzara*. Lasarte Aretoan.

APRILAK 17
DIMA

10:30etik 14:30era, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Ahizpatasuna gure gorputzean* tailerraren saioa Eurne Epelde trebatzailearen eskutik eskolan.

LEMOA

19:00etan, *Zoaz pake santuan* antzezlan. Aktoreak: Ane Gabarain eta Mikel Laskurain. Kiroldegian.

APRILAK 18
IGORRE

16:30ean, zinea, *Tess eta ni*; 18:45ean, *Dardara* Lasarte Aretoan.

begitu
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

www.begitu.org

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

LANA

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, coaching edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: narao_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

TABERNAN LAN EGITEKO PREST

Astegoi en eta jaiegunetan tabernan lan egingo neuke Arratia edo inguruetak herrietan. Arloan esperientziaduna naz. Interesautu egon ezkeru idatzi

konpromiso barik 619 893 185 telefonora.

LAN EGITEKO PREST

Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezkeru deitu 648 470 485 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modeloa, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Eñaut Elorrietaren kontzerturako.

Kepa Intxausti (Igorre)
Janire Lopez (Igorre)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seimmoda@hotmail.com

ZEKUTZE
JATETxea
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheka · Igorre (Bizkaia)

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
Tel.: 609-79-40-54

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
Publizidadea: 649 979 115
begitu
begitu@topagunea.com
www.begitu.org

BIZARGINAK
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukanduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, beheka IGORRE



18 urte

arratia
ubide
zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAWKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Hori egiteagaitik **Garena** jatebxean lagun birentzako degustazio menua zozketatuko dogu aprilean.




*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€ 15€

✂

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.




Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroen truke Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!

Zure antzinako bitxiak ekarrita, urrea berrerabiltzen dugu, zure ametsetako harribitxia sortuz.

Bitxitegia



Karmen, 2 | AMOREBIETA
Juan Bautista Uriarte, 49 | GALDAKAO








Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizidadea diseinatzen deutsu.

Publizidade eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana. Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu (beste aldizkari batzuk, internet...).

Publizidadea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.

1. AUKEREA
Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA
Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*